

XEDAPENA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ IZENDATZEN DUENA KALITATEZKO TEKNIKARIA KATEGORIAN LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUKO EPAIMAHAIA.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, plazak lanbide-kategorien arabera banatzea onartu zen, eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, Osatek, S.A.-n aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 30eko xedapen baten bidez, oposizio-lehiaketa bidez lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak onartu ziren, Osatek, S.A.-n destinoa duten kalitatezko teknikariaren kategorian.

Oinarri orokorrak onartzen dituen xedapenaren 12. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, OSATEKeko zuzendari gerenteak hautaprobe horiek kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horregatik, ematen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Bat.- Osatek, S.A.-n destinoa duen kalitatezko teknikariaren kategorian lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatzea eta eratzea, lehiaketa-oposizio bidez.

Bi.- Epaimahaia

Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia:

Presidentea: Laura Gey de la Varga.

Kideak: Uxue Bilbao Ibarrola.
Fernando Sierra Hernández.
Gabino Machón González.

Idazkaria: Jorge Abeledo Fernández.

Hiru.- Gauzatzea.

Sinatzen den egunean jarriko da indarrean xedapen hau. Jakinaraz bekie interesdunei.

Lau.- Argitalpena

Xedapen hau OSATEKen webgunean (www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da.